



Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak

Euskal kantagintzaren ondarea

2016ko urriak 27

Mahai-inguruaren laburpena

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak dokumentazio alorraren inguruko eta, bereziki, Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuarekin sortu ziren. Hirugarren edizio hau ere Mintzola Ahozko Lantegiko Elkargunearen baitan, euskal ahozko sorkuntzen inguruan antolatu da. Tradiziozko kantagintzak dokumentazio mailan duen egoera aztertu da.

- **[Euskal Kultur Erakundea \(Uztaritze, Lapurdi\)](#)**.
Maite Deliaart, ahozko ondare sailean misio karguduna.
- **[Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboa \(Erresteria, Gipuzkoa\)](#)**.
Jon Bagues, zuzendaria.
- **[Labayru Fundazioa \(Derio, Bizkaia\)](#)**.
Igone Etxebarria, zuzendariordea.
- **[Sü Azia Elkartea \(Maule, Zuberoa\)](#)**.
Jean Mixel Bedaxagar, lehendakaria.

Moderatzailea: Nere Erkiaga. [Xenpelar Dokumentazio Zentroa](#).

Kantagintzaren ondare lanei buruz:



Euskal Kultur Erakundea

Uztaritze, Lapurdi. Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren Artxibo zerbitzuan dauden euskarazko soinudun eta ikus-entzunezko funtsen tratamendua egin du Euskal Kultur Erakundeak. Funts hauetan eta Alemaniatik jasotako grabazioetan (Lehen mundu gudan egindakoak) kantagintzaren inguruko testigantza zaharrak daude. [Hemen egindako lanari buruzko informazio gehiago](#).



Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboa

Errenteria, Gipuzkoa. Eresbil 1974an sortu zen euskal musikarien lanak zabaltzeko helburuarekin, eta gaur egun musikaren ondarea, eta bereziki euskal musikagileen inguruko dokumentazio zerbitzua eskaintzen duen zentroa da. Euskal kantagintzaren ondarearen inguruan hainbat egitasmo burutu ditu. [Hemen informazio gehiago.](#)



Labayru Fundazioa

Derio, Bizkaia. Labayru 1977tik euskal kultura ondarea ikertu, bultzatu eta gizarteratzeko helburuarekin lanean dabilen erakundea da eta hainbat arlo lantzen ditu, tartean, herri-ondarearen bilketa, eta horren barruan, euskal kantagintzaren ondarea. Bildutako dokumentazioa Labayruren Euskal Liburutegiaren bidez eskaintzen da. [Hemen informazio gehiago.](#)



Sü Azia Elkartea (Maule, Zuberoa).

Maule, Zuberoa. Su Azia elkarteak Zuberoari buruzko eta zuberotarrez dagoen ondarearen bilketa du helburu. Zuberoako pastoral, kantagintza eta bestelako ondarea osatuta du, etxez etxe egindako bilketan. Hainbat pertsona ibili dira lan horretan, eta azken urteotan Maddi Oihenartek egin ditu Su Aziatik bilaketa lanak. Su Azia Zuberoako kantagintzaren ondarearen erreferentia da gaur egun.

Mahai-inguruan zehar aipatutakoak:

1. Bilketa lan handia egin da, eta oraindik ere egiteko dago.

- Lurralde guztietan kantagintzaren inguruko ondarea bilduta dago: Iparraldean, Hegoaldean baino gehiago eta, barrualdean, kostaldean baino gehiago.
- Bilketa etengabeko lana da: beti dago zer bildu, ahozkoan batzen den hori aldatzen joaten delako eta gaur egun kantatzen dena ez delako etorkizunean kantatuko denaren berdina izango.
- Badira oraindik ezagutzen ez diren funts zaharrak, eta erakundeetara heltzen ari direnak.
- Dokumentu mota guztiak behar dira, kantagintzaren ondarea transmititzeko: kantuen letrak, partiturak, grabazioak, eta abar.
- Bilketa lanak ondo egin diren ala ez jakiteko ikerketa gehiago beharko litzateke.

2. Ondare-erakundeen arteko harremana egitasmo zehatzetan ematen da.

- Parte hartzaileen arteko harremana egitasmo zehatzen inguruan ematen da.
- Euskal kantagintzaren ondarearen inguruan erakunde askoz gehiago daude.
- Lurraldeari lotutako ondare-bilketa egitasmoak daude, baina ez dago elkarlaneko egitasmorik.
- Kantagintzaren inguruko ondarearen argitalpen zehatzak daude, baina elkarren arteko loturarik eta ezagutzarik ez dago. Ahaleginak biderkatzen dira.
- Unibertsitatearen lana faltan botatzen da, kantagintzaren inguruko egitasmo zabalagoak bultzatzeko.

3. Bildutako ondarearen ezagutza falta.

- Bilduta dagoen materiala ez da erabiltzen: kantagintzaren inguruko eragileek artxiboak ez dituzte ezagutzen (pedagogo, irakasleak, ikerlariak...).
- Interneten ezagutzera emateko baliabide falta dago:
 - o Bildutako kantagintzaren ondarearen katalogazio zehatza egiteko dago.
 - o Digitalizatu eta interneten publikatzea falta da.
- Publikoarengana heltzea ere zaila da, gauza gehiegi daudelako

4. Kantagintzaren transmisioa eta ikerketa bultzatu behar dira.

- Eskaera ez da handia, baina eskoletatik kantagintza lantzeko ondare eskaera badago. Gurasoen eskaririk ez dago, familiako transmisioa gutxiago egiten delako.
- Hezkuntza arautuko materiala sortzeko pedagogian adituak behar dira, behar bezalako egitasmo sendoak behar dira. Gurasoentzako materiala sortzeko ere beharko litzateke, jakiteko zer erakutsi behar den.
- Belaunaldien arteko transmisioa behar da, kantagintzaren inguruko formazioa bakarrik. Adibidez, eskoletan kantariak eraman, harreman zuzena baita euskarri hoberena; gazteekin topaketak egin; eta abar. Kantagintzan elkar ezagutu behar da, bakoitzaren kantatzeko modua ezagutarazi ... Ez da katea eteten utzi behar.
- Unibertsitatean kantagintzaren inguruko ikerketa falta da, maila guztietan.

5. Euskal Kantutegi bateratuaren aukerari buruz.

- Kantuak argitalpen zehatzetan sakabanatuta daude. [Aita Donostia eta Azkueren kantutegia datu-base batean dago](#) baina eguneratzeko baliabiderik gabe.
- Erakunde bakoitzaren lanak berezko ezaugarriak eta helburuak ditu. Denak batera jartzea ezinezkoa izango litzateke. Baina denentzat baliagarria izan daitekeen egitasmo bateratua lagungarria litzateke.
- Baliabideak eta metodologia bateratu bat beharko lirateke, arazo teknikoak gainditu eta erakunde guztien ezaugarriekin bateratzeko. Unibertsitateak, ikerlari talde batek finkatu beharko lituzke moduak. Unibertsitatearen beharra dago.

- Ezin dena batera jarri: EGITASMO AMANKOMUNA, denentzat baliagarria eta bakoitza bere ezaugarriekin bilketa eta ikerketan jarraituko duena.
- Ikerketarako eta transmisiorako lagungarria litzateke, baina ez dago eskari garbirik. Horrelako ahaleginak erabiliko den ziurtasuna behar du. Ez dago kantagintzaren inguruko eskaririk ere. Ez da eskari edo beharrik jaso.

6. Kantagintzaren (elkarte, eragile ...) eta ondare-erakundeen arteko harremana behar da.

- Euskal kantagintzaren inguruan dabiltzan beste eragileen eta ondare-erakundeen arteko harremana behar da.
 - Egitasmoak bultzatzeko: beharrak identifikatu eta ziurtatzeko.
 - Ondare bilketan elkarlanean aritzeko
 - Ondarearen tratamendua hobetzeko